

EIBARKO EGOITZA

ZENTROA

ELKARBIZITZARAKO

ARAUTEGIA

## *Sarrera*

Barne-funtzionamenduko araudi honek egoiliar izatearekin zerikusia duten alderdi esanguratsuenak jasotzen ditu.

Jarraibide horiek egoitza-zentroko lan-programan proposatutako helburuak betetzen lagundu behar dute, eta honako hauek dira:

- Ikasleentzako ostatu-zerbitzua ematea.
- Errendimendu akademikoa, prestakuntzakoa eta bizikidetzakoa optimizatzea. Hezkuntza-jardueraren bilakaera-eskakizunetara egokituko diren zerbitzu gehigarriak eskura jartzea.
- Nortasunaren hazkundera bultzatzea.
- Askatasunaren, parte-hartzearen eta bizikidetzaren printzipioekiko errespetua sustatzea.
- Lan-ohiturak, erantzukizuna, arobetxamendua, ikasketa eta antolaketa sustatzea.
- Ikasle egoiliarrei prestakuntza osagarria ematea, eskolaz kanpoko jardueren eta kirol-jardueren programaren bidez.
- Zentroko eta konplexuko estamentuen arteko diziplinarteko elkarrizketa sustatzea.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar ikasleek egoitza erabiltzeko duten arrazoi nagusia eskoletara egunero beren etxeetatik normaltasunez joateko duten zailtasuna dela. Errendimendu akademiko egokia eta ikasturtea gainditzea da erronka handienetako bat. Horrek esan nahi du erdi-mailako irakaskuntzetako ikasleek nahitaez joan behar dutela eskolara, eta egoitzan baja emateko arrazoia izango da eskolara ez joatea. Ikastetxeetako ikasketa-burutzekin komunikazio bideak ezarriko dira.

Unibertsitateko ikasleei dagokienez, eskoletara joateko askatasuna, unibertsitateko araudi akademikoan jasota dagoena, ez da halakotzat hartu behar egoitza-zentro honetako ikasle egoiliarra den aldetik.

Ikasle egoiliarra izateak klaseetara sistematikoki joatea eta programazio akademiko egonkor eta jarraitua izatea eskatzen du. Malgutasun horrek ez ditu inola ere aldatu behar egoitza-zentroko arau orokorrak, guztiei berdin eragiten baitie.

Egoitza-zentroko zuzendaritzak, irakaskuntza-batzarrak eta egoitza-kontseiluak eskumena izango dute ikaslearen ikasketekiko eta egoitza-zentroarekiko jarrera baloratzeko, eta, hala badagokio, egoiliar izateari uzteko.

Egoitza-zentroaren berezitasunak eta planteatutako helburuak lortzeak, duen konplexutasunagatik, zentroaren historian zehar egunez egun agertzen joan diren portaerak ahalik eta gehien eta unean-unean argitzea eskatzen du. Horrela izanda, dokumentu honetan jasotakoa hazteko eta helburu handiagoetara iristeko aukera emango digun araudia izango da, bai egoitzan, erakunde gisa, bai bere banakotasuneko arloetan bizi den ikaslearengan.

Arau hauek guztiak nahitaez bete behar dira. Zentroan bizi diren guztiek bete behar dituzte arau horiek. Baten bat beteko ez balitz, dagokion zehapena ezarriko da, eta arlo horretako **"organo eskudunek"** emango dute irizpena:

Egoitza Kontseilua

Egoitzako Zuzendaritza

Egoitza-kontseilua zuzendariak, tutoreak eta egoitza-zentroko administrazio eta zerbitzuetako langileak osatzen dute eta araudi hau betetzen dela zaintzeko ardura zuzena izango dute.

## **1. HASIERAKO EGUNA ETA EGUTEGIA.**

Egoiliarrak zuzendaritzak adierazitako egunean sartu beharko dute Egoitzan.

Ikastetxe bakoitzak ikasturtea hasteko adierazten dituen egunetan egoitza-zentroan sartzen ez diren ikasleek ezin izango dute egoitza-plaza hartu, eta beren eskubideak galduko dituzte, ezinbesteko kasuetan izan ezik; kasu horietan, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote egoitza-zentroko zuzendaritzari, eta hark, egoki iritziz gero, dagokion egiaztagiria eskatu ahal izango du.

Azken atal hau Gabonetako eta Aste Santuko oporren martxarako eta itzulerarako ere kontuan hartuko da.

Egutegitik kanpo geratzen diren egun guztiak, hala nola Aste Santua, Eguberriak, zubiak eta jaiegunak aparte kobratuko dira. Egun horietako egonaldia aldeztu aurretik baimen justifikatuarekin egin beharko

da.

Ostatu motari dagokionez ( pentsio osoa edo ostatua bakarrik, logela mota, ...) aldaketak egiteko aldia lehengo hilabetean egin beharko da. Epe hori igarotakoan, ez da itzuliko aldaketak dakarren zenbatekoa.

Egoitza uztailaren hasieran azterketak bukatu ostean utzi egin behar da. Soilik justifikatutako egoerarengatik luzatzeko aukera izango du.

Egoitzako egutegia, tabloietan ikusgai egongo da.

## **2. ERAGINDAKO KALTEAK**

Ikasturte hasieran eta ikasleak bertan direla, gelen eta gainerako gelen egoera aztertuko da, eta guztiak, ikasturtearen amaieran, kontserbazio-baldintza beretan aurkitu beharko dira.

### **Kalteak egoitzetan**

- Gelan gertatzen diren kalte materialak ( bai pertsonalak bai egoitzakoak ) gelan bizi direnen zuzeneko erantzukizuna izango da.
- Solairuan sortzen diren kalteak solairu horretako egoiliarrei dagozkie zuzenean (pasilloan, lehioetan, sukaldean, komunetan, etab...)
- Espazio komunetan gertatzen diren kalteak egoiliar guztien erantzukizun kolektiboaren barruan sartuko dira.

Goian adierazitako eremuetako batean kalteren bat egozten bazaio ikasleari, horren zenbatekoa ikasturtea amaitu aurretik ordaindu beharko du, dagokion faktura jaso ondoren.

Kaltetutako materialaren konponketaren edo erosketaren kostua ordaintzeaz gain, gertaeraren zirkunstantzien arabera, falta arintzat edo larritzat jo ahal izango dira eta dagokion zigorra izan ahal dute.

### **Egoiliarren betebeharrak hauek izango dira:**

- Besteen eskubideak errespetatzea, zuzen jokatzeta eta egoitza-zentroko pertsona guztiak behar bezala

tratatzea.

- Esleitutako plazan bizitzea eta gela eta altzariak egoera onean edukitzea.
- Egoitzako instalazioak, altzariak, materiala eta ekipamendua erabilera-baldintza onetan errespetatzea eta zaintzea.

Elkarbizitza-arauei eta lokalen eta ordutegien erabilerari dagokienez xedatutakoa errespetatzea, eta ikasleek atseden hartzeko eta ikasteko duten eskubidea bermatzea.

Dagozkion ordainketak garaiz ordaintzea (beti ere egoitza utzi aurretik).

### **3. ARGIA ETA URAREN ERABILERA**

Debekatuta dago ura alferrik gastatzea, adibidez, txorrotak irekita uztea, etab.

Korrante elektrikoaren erabilerak arrazoizkoa izan beharko du, logela uzterakoan argia itzalita dagoela ziurtatu behar da. Ezin da baimendurik ez dauden tresna elektrikorik erabili.

Erabat debekaturik dago edozein motatako tresna elektrikorik eduki eta erabiltzea: labeak, kozinatzeko tresnak, berogailuak, hozkailuak, telebistak eta antzeko ezaugarriak dituzten aparatuak erabiltzea. Halaber, debekatuta dago sare elektrikoa manipulatzeko edo bestelako instalazioak egitea.

Argia edo ura irrazionalki erabiltzea hutsegite arintzat edo larritzat hartuko da kasuaren larritasunaren arabera.

Labeak, berogailuak, hozkailuak, kozinatzeko aparatuak eta antzeko aparatuak erabiltzea falta larritzat edo oso larritzat hartuko da

.

### **4. GARBIKETA**

Egoitzako espazioetan dauden paperontziak eta edukiontziak arretaz erabiliko dira. Gelako paperontzia eta solairuan dauden birziklatzeko edukiontziak behar bezala erabiliko dira. Sukalde guztietan edukiontzi hauek egongo dira: zabor organikoa, papera, plastikoa eta errefusa. Asteko solairuko arduradunek birziklapena ondo egiten ari dela ziurtatu behar dute eta hala ez bada, solairukideekin hitz egin. Asteko arduradunek ere zaborra dagokien zaborrontzietara ateratzeko ardura izango dute.

Debekatuta dago edozein motatako paper edo hondakinak lurrera botatzea. Egoitzetako eta inguruko gunetako garbitasuna ahalik eta gehien zaintzea guztion ardura da.

Egoitzako zuzendariak, egoki baderitzo, instalazioak ixteko eskumena izango du gutxieneko garbitasun eta higiene baldintzak bermatzen ez direla ikusiko balu.

## **5. LOGELAK**

Egoitzako zuzendariak esleituko ditu gelak, ikasleen lehentasunak, gelen erabilgarritasuna, ikasleen antzinatasuna eta egingo dituzten ikasketak kontuan hartuta.

Behin gela esleituta, zuzendaritza taldearen edo hark eskuordetzen duen pertsonaren baimen berezirik gabe, egoiliarrek ezin izango dute bere kabuz gela aldaketarik egin. Egoitzaren beharren arabera, egoiliarrek gelaz aldatuko dira, aldez aurretik abisua emanaz.

Logelak garbi eta ordenatuta mantendu behar dira uneoro eta goizeko 09:00etatik aurrera garbitzaileak logelen garbiketan arituko dira, ezingo zaie sarrera eragotzi. Egoiliar bakoitzak egunero egin beharko du ohea, eta nahitaezkoa izango da maindireak erabiltzea. Maindireak asteazkenero ikuztegiara eramango dira garbitzera eta garbiak jaso.

Garbiketa-zerbitzuaren lana errazteko, gela hutsik utzi beharko da eguneroko garbiketaren unean, eta azkar eta eraginkortasunez garbitzen lagunduko duten baldintzetan: arropa eta oinetakoak jasota, zoruan trasterik ez, mahai ordenatuak, armairu itxiak...

Logelako giltza galduz gero, lehenbailehen jakinarazi beharko da atezaintzan blokeatua izan dadin. Berria egin arte, atezainak atea ireki edo ordezkoko giltza utziko dio egoiliarrari. Ordezko giltza behin behinekoa da eta ezin da astebete baino gehiago eduki, zuzendaritzatik pasa beharko da euro baten truke berria jasotzera eta ordezkoko itzultzea.

### **Erabat debekatuta dago:**

- Egoitzako arduradunen baimenik gabe logelako altzarien kokapenean edozein aldaketa egitea. Edozein aparatu elektriko jartzea eta erabiltzea.
- Esekitokiak, esekigailuak edo antzekoak armairuetan eta gelako sarrerako atean jartzea.
- Gailu edo tresna elektrikoak erabiltzea edo ezartzea.

- Argazkiak, posterra, kartelak, oharra, etab., zinta itsaskor edo itsasgarriekin armairu, ohe eta mahaitxoetan jartzea
- Arropa logelan lehortzeko eskegi.
- Paretak hondatzen dituzten kartelak jartzea.
- Leihoetan edo ateetan edozein objektu jartzea (sinboloak, posterra, arropak, banderak, etab..).
- Ke-detektagailuak estaltzea edo manipulatzeko.( Penaletik denuntzia jaso daiteke).
- Logeletan janaria prestatzea edo elikagaiak gordetzea (sukaldeko takilak daude).

Egoitzako arduradunen baimenik gabe altzariak logelan jartzeko modua aldatzeak zehapen ekonomikoa ekar diezazkizkieke logela horretako egoiliarrei.

## LOGELETAKO BIZIKIDETZA

Ikasketa gelako erritmoa eta giroa arautu behar duen helburu nagusia da. Bizikidetzan eragiten duen edozein zailtasun zuzendariari jakinaraziko zaio neurri egokiak har ditzan.

Gela ez da bilera edo jolaserako leku izango.

**Erabat debekatuta dago zaratak egitea** (oihuak, lasterketak, musikak,telebistaren bolumen altua...). **23:00etatik aurrera**, bai sukaldean, bai korridoreetan eta bai geletan, isiltasuna izango da. Musika entzutera ohituta dauden ikasleak musika kaskoak erabiliko dituzte beraien musikarekin besteak ez molestatzeko.

Ikasketa- edo atsedeen-giroak oztopatzea **falta larritzat** hartuko da.

## 6. JANTOKIA

Bertan dauden sukaldeburuaren, sukaldeko langileen eta egoitzako arduradunen argibideei erantzungo zaie.

Mahaia garbi utzi behar da, baita zorua eta inguruko mahaia ere.

Erabat debekatuta dago jangelako tresneria ateratzea (edalontziak, aiztoak, platerak,bolak, etab.).

Arrazoi justifikatuak direla-eta jantokira joan ezin diren egoiliarrek egoitza-zuzendariari jakinarazi

beharko diote. **Aurrez abisatu gabe jantokira behin eta berriz joaten ez bada, falta larritzat hartuko da, eta Egoitzak ikasleari zerbitzu hori kentzea erabaki ahal izango du, berak erabakitako egunetan.**

## **7. ATEZAINZA**

Egoitzatik kanpoko edozein pertsonarentzat hasierako erreferentzia izango da eta egoitzako ikasleen hainbat jardueratarako nahitaezko erreferentziatzat hartuko da. Atezaintzako ordutegia 24 ordukoa izango da:

**ATEZAINZAKO TELEFONOA: 943 89 92 11**

## **8. IRTEERAK**

Irteerak gaua egoitzatik kanpo igarotzea badakar, zuzendaritzan jakinarazi beharko da, kanpoan emango dituzten egunak eta destinoa adierazita.

Asteburua eta/edo zubia igarota egoitzara itzuliko ez diren ikasleek telefonoz jakinarazi beharko dute egun horretan bertan.

Astelehenetik ostiralera bitarteko egoiliarrek **justifikatutako** arrazoiren bat dela medio astebururen batean egoitzan geratu behar dutenean, egoitzako zuzendaritzan baimena eskatu beharko dute. Egun horiek ordaindu egin beharko ditu, aparteko faktura baten bitartez.

Astelehenetik igandera bitarteko egoiliarrek edozein arrazoiengatik astebururen batean egoitzan geratu behar ez badira, egoitzako zuzendaritzan aurretik jakinarazi beharko dute.

**Asteburuan egoitzan geratzeko baimena ez eskatzea edo egongo ez dela ez jakinaraztea falta larritzat edo oso larritzat hartuko da,egoeraren arabera.**

## **9. EGOITZAKO ERAIKINETARA SARBIDEA**

Egoiliarrek ez diren pertsona guztiek debekatuta dute egoitzara zein logeletara sartzea, aldez aurreko zuzendariaren baimenik gabe.Kanpoko norbait baimenik gabe sartzen duen egoiliarrek abisua eta falta

arina izango du lehenengoan, bigarrean larria izango delarik. 23:00etatik aurrera, baimena duten ez-egoiliarrek ezingo dute egoitzan egon.

## 10. LARRIALDI PLANA

Ikastetxeak ebakuazio-plan bat du, eta haren arauak ikasle guztiei jakinaraziko zaizkie. Egoiliar guztiek arau hauek jarraitu behar dituzte, Egoitza ebakatu behar den guztietan, dela simulakro batengatik, dela benetako arrisku-egoera batengatik.

Su-itzalgailuak edo alarmakin erlazioa duten bestelako gailuen erabilera okerrak **falta larritzat** hartuko dira. Honek zentrotik berehalako kanporatzea ekar dezake, bide penaletik ere zigortua izan daiteelarik egindako lege urraketaen larritasunaren arabera.

## BESTE GAI BATZUK

Motorra duten ikasleek baimendutako eremuan aparkatu beharko dute (Unibertsitate Eskolaren ondoko zonaldean). Bizikleta dutenak egoitzaren kanpoko aldean prestatuta dagoen gunean utzi ahal izango dute, edo Urkiola barneko bizikleten biltegian aurretik horretarako baimena zuzendaritzan eskatuz gero.

Debekatuta dago egoitza barruan eta egoitzaren inguru osoan baloiarekin edo pilotarekin jokatzeko. Kirolentzako eremuak gimnasioa edo polikiroldegiko pistak izango dira.

Egoitzaren inguruan dauden lorontziak eta berdeguneak zaindu eta errespetatu behar dira.

**Erabat debekaturik dago egoitza barruan erretzea edo alkohola edatea: 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.**

**Egoitzaren inguruan debekuzko pegatina duten lekuetan ere debekatuta dago erretzea** (Gorbeako sarreran, Urkiolako sarreran zein Prebentzio Zerbitzuko ingurune osoan). Araua ez errespetatzea **falta larritzat hartuko da. Lehen aldian abisua emango da, eta** urteko kuotan sarturik ez dauden baina eskatuz gero ematen diren hainbat zerbitzu extra galtzea ekar dezake (Gimasioarako sarbidea, poltsa hotzak eskatzeko eskubidea, ikasgeletarako sarbidea, jolastokiaren erabilera, gelen aukeraketa, ikuztegia, etab.. ).

## 11. HUTSEGITE MOTAK ETA ZIGORRAK

Hutsegiteen bidez, gure zentroan nahi ez diren jokabideak adierazi nahi ditugu. Beraz, egoitzako kide guztiak sentibilizatzea da helburua, prebentzioan lan eginez, jokabide hauek gerta ez daitezen. Gertatuko balira ere, kasu askotan, ez errepikatzea lortu beharko genuke.

Araudi honetan lau falta edo hutsegite mota ezartzen dira, bai eta Egoitzak horien aurrean izan beharreko jarduketa ere:

Hutsegite arina

Hutsegite larria, pilaketagatik

Hutsegite larria

Hutsegite oso larria

**a) Hutsegite arina:** ahozko ohartarazpena edo idatzizko ohartarazpena, eta, hala badagokio, eragindako kaltea ordaintzea. Diruz edo gizartearentzako zerbitzuak eskainiz.

**b) Hutsegite larria:** idatzizko ohartarazpena eta Egoitza erabiltzeko zein egoilarra izatearen eskubidea etetea 3 eta 15 egun bitarteko epean, bai eta, hala badagokio, eragindako kaltea ordezkatzeko edo kalte-ordaina ematea ere.

**c) Hutsegite oso larria:** egoiliar izaera etetea 16 eta 90 egun bitartean, edo egoitzako diziiplina batzordeak hala erabakitzen badu, egoiliarra behin betiko kanporatzea, errentamendu-kontratua hutsalduz, eta, hala badagokio, eragindako kaltea ordezkatzeko edo kalte-ordaina ematea.

### **HUTSEGITE ARINA**

Hutsegite arinak izango dira:

- Egoitzako logelak, zerbitzuak, instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko araudi honetan araututako arauak ez betetzea, portaera errepikatzen ez den bitartean.
- Instalaziotan garbitasunik ez izatea.
- Izarak gutxienez hilean behin ez aldatzea.
- Zerbitzuak zabarkeriaz erabiltzea eta ondasunetan kalte arinak eragitea.
- Gainerako ikasleen ikasketekiko, jardueretikiko edo elkarbizitzarekiko noizbehinkako oztopoak

eragitea.

- Jangela eta janariaren erabilera desegokia.
- Zerbitzu komunak baimenik gabe ezarritako ordutegitik kanpo erabiltzea.
- Egoitza Esparruko gune edo zerbitzu komunitateko gauzak logelan edukitzea, zuzendariaren baimenik gabe.
- Eremu komunen eta logelen garbitasunari eta higieneari buruzko arauak haustea. Lokal komunak oker edo gehiegikeriaz erabiltzea.
- Bizikidetzaren eragozten duen edozein jardura antolatzea edo horretan parte hartzea.
- Zuzendaritzari ez jakinaraztea esleitutako gelan gaua eman dela edo zentroan ez dagoela.
- Egoitzako langileen ( Atezainak, idazkaria, zuzendaria eta tutorea) jarraibideak edo erabakiak argi eta garbi ez betetzea.
- Normalean eta justifikaziorik gabe, esleitutako gelan ez bizitzea hamabost egunetik gorako aldia.
- Ondasun higiezinak nahita suntsitzea edo hondatzea, geletako altzariak eta tresnak barne, baita altzariak ledo beste elementuak ekuz mugitzea ere.
- Jantokiko zerbitzuaren erabilera beste pertsona batzuei lagatzea edota gosaria bakarrik izanda bazkaria edo afaria jatera sartzeko (aparteko tiketa erosi ez baldin bada).
- Egoiliarren baimenik gabe edo berau joandakoan gela batean sartu eta bertan egotea. Gelako giltza galzte eta abisua berehala ez ematea.
- Gelako giltza galdu ondoren egoitzak ordezkari giltza (B) utzi ondoren astebeko epean berria ez egin eta ordezkari ez itzultzea.
- Egoitza esparrua osatzen duten edozein gune posterrak edo edozein motatako propaganda jartzea baimena eskatu gabe eta kortxoetatik kanpo.

### **HUTSEGITE LARRIA**

Elkarbizitza Unibertsitarioa arautzen duen **otsailaren 24ko 3/2022 Legean** zehaztutako ekintzak aurerra eramatea (hasiberriari isekak edo nobatadak, portaera humiliagarriak, etab..). Kasu batzuetan hutsegite oso larriak bezala hartuko dira. Egoitzan hauek burutzeko **materiala gordetzea ere falta larritzat joko da.**

- Gelen erabilera, osorik edo partzialki, zentroan plaza izateko eskubiderik ez duten pertsonen erabilera.
- Kanpo espazioan dagokion lekutik kanpo erretzea falta arina izango litzateke. Bi aldiz izanez gero falta larria izango da eta zerbitzu extrak erabiltzeko aukera galduko da. Hirugarren bat gertatuz gero, kanporatzea gertatu daiteke.
- Logelan honako tresna hauek eduki zein erabiltzea: Mikrouhingailua, kozinatze robotak, berogailua, hozkailua, telebista.

- Edari **alkoholdunak** egoitzan sartzea, edukitzea edo kontsumitzea.

**Tabakoa eta bestelako erretzeko sustantziak** egoitzan sartzea, edukitzea edo erretzea. Tabakoaz bestelako sustantziak hazteko aparatuak edukitea zein erabiltzea.

- Besteren gela batean sartu eta bertan egotea, ohiko egoiliarra bertan egon gabe.
- Gainerako egoiliarrenganako edo zentroko langileenganako errespetuari eta begiruneari larriki huts egitea, bai eta zentzarekin lotuta duen edo zentroan dagoen beste edozein pertsonarenganako errespetuari eta begiruneari ere..
- Ikasketan eta gainerako egoiliarreen atsedenaldira nahasmendu larria eragitea, eta gaueko isiltasuna larriki oztopatzea.
- Edozein jokabide arrazista, sexista eta/edo xenofobo izatea.
- Itzalgailuak edo alarmak behar ez bezala erabiltzea.
- Zuzendaritzaren, lan-kontratuko langileen eta egoiliarren aurkako indarkeria- edo erasoak. Gainerako egoiliarrenganako edo zentroko langileenganako errespetuari eta begiruneari larriki huts egitea, bai eta zentzarekin lotuta duen edo zentroan dagoen beste edozein pertsonarenganako errespetuari eta begiruneari ere.
- Objektuak leihotik botatzea hutsegite larritzat edo oso larritzat joko da, eta zentrotik berehala kanporatua izateko arrazoia izan daiteke ( Globoak, janaria.. ).

### **HUTSEGITE LARRIA PILAKETAGATIK**

Hiru hutsegite arin egitea pilaketagatiko hutsegite larritzat hartuko da.

### **HUTSEGITE OSO LARRIA**

**Aurreko guztiak hutsegite oso larritzat jo daitezke kasuaren arabera.**

**Aldi berean, ikasturtean bi hutsegite larri edo gehiago egitea falta oso larritzat joko da.**

Aurreko artikuluetan tipifikatutako hutsegiteak egiteagatik, **zehapen** hauek ezarri ahal izango dira:

#### **a) Hutsegite arinengatik:**

- Idatzizko ohartarazpen pribatua.
- Kalteak konpontzea ( Gizartearentzako Zerbitzu eginkizuna )

- Zerbitzu komunen erabilera astebetetik 2 hilabetera etetea (Gimnasioa, Ikuztegia, janari edo bazkari poltsak, ikuztegia, ikasgelak, kantxen erabilera, jolaslekua, etab..).
- Kurtso amaieran Zuzendariak gela aukeratzeko epea irekitzen badu, adierazitako lehentasunezko aukera galtzea hurrengo ikasturte akademikorako.
- Ostaturako dirulaguntza kentzeko proposamena edo plazaren erreserbaren ziurtagiria interesdunari ez ematea.
- Aldi baterako kanporatzea, gehienez ere hilabetez.

**b) Hutsegite larriengatik:**

- Aldi baterako kanporatzea, hilabetetik hiru hilabeteraino.
- Behin betiko kanporatzea.